

URTEKO KONTUAK

2004'KO SARRERAK..... 67.315,44

SARRERAK 2004

URTEERAK
KULTURARAKO 18.962,27
ALDIZKARIRAKO 22.926,02

WEB ORRIRAKO 5.000,00
GUZTIRA 46.888,29

GAINKIÑA.....20.427,15

Urtero lez, igazko aurrekontuak emongo dautsuedaz. Aurten, emakume batengandik laguntza bat artu dogu, diru ori ondo etorri jaku etxeko derramak ordaintzeko. Derrama orrek 9.154.41 euro eroan dauz, aurten.

Ostantzean gitxi gorabera emakume orren dirutik erdia geratu jaku.

Beste alde batetik Foru Aldundiak dirua emon euskun web orri bat zabaltzeko, eta orri orregaz 5.000 euros geratu dira.

Emakume orreri ta Foru Aldundiari eskerrak, zor guztiak ordainduta daukaguz eta dirua geratu jaku. Aurten igaz baño, arpidedun aldetik diru gitxiago artu dogu, errietatik batez be.

Bazkideen sariak.....4.779,00
Irakaskintzako eskuratzeak.....2.925,00
Emailtzak.....20.937,21
Beste sarrera batzuk
moskiñak etabar 159,07 28.800,28

FORU ALDUNDIAK
(kulturarako).....7.440,00
(ZER aldizkarirako) 15.000,00
(WEB orriarako).....10.825,00
BBK (Zer'en iragarkia)2.250, 16
UDALAREN LAGUNTZA 3.000,00 38.515,16

GUZTIRA..... 67.315,44

ZER ALDIZKARIAREN URTEERAK

Irarkola'ko Frak. (Flash)..... 11.264,88
Bidalgo'ko2.505,10
Zuzendaritza.....2.750,00
Kobratzaillea'ri emonda.....375,00
Idazlea'ren alogerea 3.600,00
Etiketak bidaiak etabar759,54
Izalbe (estalkiak aldizkarirako) 914,89
Arriola'ri ordainduta 756,61

GUZTIRA.....22.926,61

KARMELE' K

URTEERAK 2004

Irakaskintza.....4.140,00
Neskameari ordainduta..... 1.014,00
Euskal Astea1.200,00
Ipuin sariketa..... 900,00
Uri-zerga ta SS. Bilbao, ura, zarama,
argia, urrutizkiña, etxeko gastuak,
sarigarriak uri-zerga, etabar1.985,87
Etxeko alkarte + Derrama 9.722,40

GUZTIRA..... 18.962,27

AFRIKA: 4.- ETIOPIA

Len Abisinia eukan izena eta iñok ez daki ango erritarren jatorria zein dan, baiña eurak Salomon'en eta Saba'ko erregi-ñaren jatorriak dirala diñoe. Kristo baiño milla urte-inguru lenago, Menel, Salomon'en eta Saba'ren semea basmortura joan zan eta Etopia'ra eldu bere gudariakaz. Orregaitik, oraingo erregea Haile Salasie 1 Salomon'en Errege-Etxekoa da.

Sem'darrak dina eta erlejiñoz koptoak, Biztanlerik erdiak musulmanak.

Auxe da Europa'tarrak Afrika'n kolonizatu ez daben erri bakarra, txiroa dalako.

Italia'k bitan eskuratu nai izan dau, 1896n. eta 1935n. urteetan. Baiña erregea barriro bertaratu zan 1941n. urtean, inglesak lagunduta.

Antxiñako nekazaritza dauke baiña aspaldion abereak eroan dabez eta lurra goialdean ona dan lez, garia, artoa, tabakoa eta kafea lortzen dabez. Idi asko ikusten dira an bedarra jaten. Ondo landu ezkerro, Afrika'ko garitegia izan leiteke.

Addis-Abeba uri buru zarra da, 2500 m'ko goiarea dauka, Afrika'ko gorena. Egazkin zelai ona dauke.

OLAZAR'tar MARTIN'ek